



BASEKTOMIA

Zer da basektomia?

Gizezkoendako esterilizazio-teknika kirurgikoa da. Espermatozoideak testikuluetatik zakilera garraiatzen dituzten hobi deferente biak mozten dira, eta gero bi muturrak lotzen. Horrela, espermatozoiderik gabeko eiakulazio-semena lortzen da.

Anestesia lokala jartzen da eskrotoaren alde banatan egindako bi ebakitxoetatik sartuta.

Kirurgia amaitzean ongi bazaude, etxera joan zaitezke, ahal dela norbaitek lagunduta.

Operazio egunean, eraman galtzontzilo slip estuak, kirurgia ostean jartzen diren konpresei eusteko.

Nola prestatu behar dut interbentziorako?

1. Beharrezkoa da BARAURIK egotea sei orduz.
2. Koagulazio-alterazioren bat baldin baduzu (odola erraz jariatzen bazaizu), esaguzu; izan ere, koagulazio-proba batzuk egin beharko dizkizugu interbentzioa egin aurretik.

Nola egongo zara kirurgia ostean?

Lehen zazpi egunetan, normala da honelakoak izatea:

- eremua hazita eta testikuluak apur bat handiagoak
- hematoma txiki bat zauriaren alderdian
- mina eta odoljario arina
- kongestio-sentsazioa eta molestiak testikuluetan.

Ikusten baduzu aipatutako seinale eta sintomak oso areagotzen direla, kontsultatu inondik ere urologiako mediku taldearekin edo **joan Larrialdi Zerbitzuetara**.

Zer egin behar duzun etxean?

- Komeni da lehen 24 orduetan etzanda egotea ahalik eta denbora gehiena, hantura hori jaisteko.
- Izotz-poltsa bat jar dezakezu hazitako eremuan, orduro 10 minutuz, hantura-prozesua hobetzeko.
- Erabili galtzontzilo estuak, slip motakoak, eskrotoaren poltsari eta zakilari ongi eusteko. Horrek lagunduko du inflamazioa gutxitzen.
- Itxaron 24 ordu dutxatu gabe, eta bost egun igerilekuan edo hondartzan bainatu gabe.
- Ez egin kirol edo ariketa gogorrik astebetetz.
- Mina baduzu, hartu medikuak aginduta dizun analgesikoa.

Zer ondorio izango du zure jarduera sexualean?

Zure jarduera sexualari hamar egunera ekin diezaiokezu.

Inportantea da basektomia egin eta hurrengo hilabeteetan **antisorgailuren bat erabiltzea** (preserbatiboa, eta beste...); izan ere, arriskua dago hodian espermatozoideak egotekoa (beraz, oraindik ere ernal dezakezu).

Harik eta egiaztatu arte kontroleko espermiogrametan ez dagoela espermatozoiderik eta urologoak **ALTA** eman arte, antisorgailu-metodoren bat erabili beharko duzu oraindik.

Basektomia osteko kontrola

Basektomia osteko kontrola basektomia egin eta lau hilabetera egingo da, espermiogramak aztertu ondoren. Honela jasoko dituzu:

- **1. Semen-lagina**, operatu eta **3. hilabetera**
- **2. Semen-lagina**, operatu eta **4. hilabetera**

Inportantea da azken lagina jaso aurretik, 30-50 eiakulazio izatea, espermatozoiderik ez dagoela ziurtatzeko.

Bolanteak eta semena jasotzeko lagin-ontziak operazio osteko kontroleko zitan emango zaizkizu ospitalera zoazenean.